

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2010eko abenduaren 3a. VIII. urtea. 2.134. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Txolarre irratia ren X. urteurreneko egitaraua aurkeztu dute Anoetan

Loatzo musika eskolako en kalejirarekin hasiko da egun guztiko jaia, 12:30ean; ondoren, bertso bazkaria, triki poteoa eta gaueko kontzertua etorriko dira

Anoetako Udalaren eta gaztetxearen laguntza eskertu dute irratikoek; gazte asanbladako kideek Berri Txarrak en kontzertua «oparitu» diote Txolarreri **o3**

Ainhoa Etxeberria Euskara zinegotzia

«Euskararekiko errespetua lortzea da daukagun erronkarik handiena»

Tolosako Udalaren laguntzarekin TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ren zenbaki hau, Tolosako etxe guztietan banatuko dugu **o4-5**



Tolosaldeko eta Leitzaldeko txinga eroale eta aizkolariek txapelketak dituzte

Aizkoran, Binakako Eusko Label Saria eta Nafarroako II. Mailako Txapelketa jokatuko dira igandean; egun berean, Euskal Herriko Txinga Eroale Txapelketan Mielangel Sukuntza leitzarria ariko da Goizuetan **o6**



→ Lehiberri zentroaren mamia azalduz

Jokin Bildarratzek, Lehiberriko lehendakariordeak, eta Joxe Luis Urdangarinek, Tolosaldea Garatzeneko gerenteak, hurrengo urtean Apatta industrigunean egingo duten eraikuntza berriaz hitz egin dute, baita Lehiakortasun eta Berrikuntzarako zentroak dituen erronkez ere. **o2**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maitte

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Diodo laserra **Behin betiko depilazioa**

Salneurriak eskatu

Bonu bereziak
gizonezko zein emakumezkoentzat
eta
tarifa bereziak gazteentzat



Eskualdeko enpresen %20k Lehiberri zentroarekin bat egitea espero dute

Bi urte barru martxan izango da Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Zentroa; 2016rako helburuak jarri dituzte

Erredakzioa Ekonomia

Lehiberri, Tolosaldeko Lehiakortasunerako eta Berrikuntzarako Zentroa bi urte barru izango da martxan. Eskualdeko eragile ekonomikoentzat bilgune izatea, enpresek nazioarteko lankidetzara proiektuetan parte hartzea, formakuntza eta aholkularitza ematea edota enpresa proiektu berriak sustatu eta bultzatzea izango dira bere egiteko eta helburu nagusiak.

Lehiberriren bultzatzaileen arabera, barne merkatuarekiko «mendekotasun oso handia» dute eskualdeko enpresek, eta horregatik, zenbait jarduerara lerro garatu nahi dituzte, «enpresen nazioarteko presentzia areagotzeko xedearekin».

Alor horrekin loturik, Hego Koroara eginiko bidaia jartzten du adibidez Jokin Bildarratz Tolosako alkate eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak. «Esperientzia oso baikorra izan genuen bertan, eta bide horretatik jarraitzea da gure asmoa, lurralde gehiagotara ere zabalduz».

Arlo honi «garrantzia berezia» eman nahi diote, eta horretarako helburu batzuk markatu dituzte. Hala, esaterako, zentroak martxan lau urte daramatzanean, bu-



Lehiberri antolatutako Teknologia eta Lehiakortasun astearen une bat. A. I.

rutu nahi duten Ekintza Plan honen eskualdeko enpresen %20k bat egitea dute helburu.

Zutabe ugari

Formakuntza izango da zentroaren zutabeetako bat. Lehiberri kudeaketa aurreratuari buruzko kurtsoak antolatuko ditu enpresetan gabeziak konpontzeko, eta eskualdeko beharrezanetara egokituko ditu. Gainera, zentroan hezitako ikasleak zuzendaritza eta erdi-mailako postuetarako lan-poltsa osatzera pasako dira.

Bestalde, enpresen arteko elkarlana sustatzea izango da zentroaren beste helburuetako bat. Lehiberriko teknikari batek barne ekintzailetasun proiektuak koordinatuko ditu, eta ekintzaileen arteko sare bat ere sortuko dute euren esperientziak partekatu eta ezagutarazteko.

Lehiberriko teknikariak zentroan bertan ez ezik enpresetan ere emango dute aholkularitza, dauden diru laguntzen edota parte hartzea izango luketen proiektuen inguruan, esaterako. Hala, aholkularitza adituak diren sare bat osatzeko asmoa ere badute; hau enpresen eskura egongo da, berrikuntza eta hobetze arloez aholkuak emateko.

Tolosaldeko enpresen bilgune izateaz gain, enpresa proiektu berrien bilgune ere izango da. Eskualdeko ekintzaileek proiektuak aurrera eraman ditzaten euren eskura izango dituzte enpresa eta berrikuntza zentroek eskaini ditzaketen laguntzak. Proiektu berritzaile hauek Lehiberri egokitutako enpresen haztegi eta hazitegietan kokatuko dira, eta Tolosaldea Garatzeneko teknikari baten laguntza izango dute.

Irudia › Tolosa



ZAINDARIEN OMENEZ

Hirukide ikastetxeak Zaindarien Astea ospatu zuen pasa den astean. Ama Kandida, Maria Güell eta Jose Calasanz euren sortzaileen omenez. Ostirala izan zen egun handia, irakasle-ikasleen partida, meza eta bazkariarekin. Azken honetan, Izarne Drabasaren eta Txaro Etxeberriaren 25 urteko lana Hirukiden eskertu zuten. HITZA

Irudia › Tolosa



TEKNOLOGIEZ IKASTEN

Tecnorrevolucion erakusketa ibiltaria dago ikusgai Trianguloa plazan, La Caixa gizarte ekintzaren eskutik. Nanoteknologia, bioteknologia, zientzia kognitiboak eta informazio eta komunikazioaren teknologiarren berrikuntzak erakustea du helburu. Abenduaren 14ra arte egongo da bertan, eta sarrera doakoa da. HITZA

Irudia › Tolosa



FINLANDIARREN BISITA

Finlandiako Kainuu herrialdeko Kainuu Vocational College ikastetxeo elektrizitate alorreko bi irakasle izan berri dira Tolosaldea Goi-mailako LH Institutuko elektrizitate alorreko irakasleekin. Harremanak sendotzeaz gain, bi herrialdeetako mugikortasun proiektuak ikastetxeen artean antolatzea izan dute helburu. HITZA

→ Laburrak

Takerekin Baskoienaren partida ikusteko aukera

KIROLA › Takek Caja Laboral Baskonia eta Khimki taldeen arteko partida ikusteko irteera antolatuta du abenduaren 9rako. Sarrera eta bidaia 25 euroren truke eskura daitezke. Interesa dutenek takesb@takesb.com helbidera idatzi behar dute edo 616 49 93 94 zenbakira deitu.

Eguberrietako Futbol Txapelketan izen-ematea

KIROLA › Eguberrietako XXIX. Shanti Txapelketarako izena emateko aukera zabalduta dute. Abenduaren 13ra arte egin daitezke, Shanti kirolak dendan.

Bihar zabalduko ditu ateak Txuletaren Festak

Abenduaren 8ra arte bazkariak eta afariak emango dituzte Zerkausian eta herriko hainbat jatetxetan

Erredakzioa Tolosa

Bihar hasiko da Txuletaren Festa, eta abenduaren 8ra arte idi txuleta osagai nagusi izango den menua eskainiko dute Zerkausian nahiz herriko hainbat jatetxetan. Bazkari eta afariez gain, beste hainbat ekintza ere izango dira asteburu luze honetan; bate-tik, Lur kolektiboak antolatuta

artisautza azoka izango da San Frantzisko pasealekuan bihar eta etzi. Bestetik, astelehenean zesta punta jaialdia izango da Beotibar pilotalekuan. Gainera, Beotibarraren 75. urteurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte, eta horietan nabarmentzekoena, asteazkenean izango den pilota partida. Asteazkenean bertan, eskualdeko txekor errea dastatzeko aukera izango da Trianguloan, 12:30etik aurrera.

Txuletaren Festarako txartelak 45 euroan eskura daitezke Tolosaldea Tour-en (943 69 74 13), eta baita Zesta Punta elkartearen (675 705794), prezio berean pilota jaialdirako sarrera sartzen delarik.

Txolarre Eguna antolatu dute irratiairen 10 urteak ospatzeko

Hilaren 11an kalejira, bertso bazkaria, triki poteoa eta Berri Txarrak taldearen kontzertua izango dira

Enertiz Maiz Anoeta

2000. urteko abenduaren 26an eskaini zuen Txolarre irratia bere lehen emankizuna. Egun horretan 10 urte beteko ditu aurten. Eta hamar urte egunero betetzen ez direnez, Txolarre Eguna presatu dute hilaren 11rako.

Kalejira, bertso bazkaria, triki poteoa eta Berri Txarrak taldearen kontzertua izango dira. Atzo aurkeztu zuten Anoetako udalderak. Txolarre irratiko ordezkariak, Periko Peñagarikano alkatea eta Anoetako Gaztetxeako ordezkaria lagun izan zituzten.

Hamar urtez, Tolosaldeko bidezidorretan barrena ibili da Txolarrea. Eskualdeko albisteak euskaraz herritarrengana iristeko ahalegina egiten dute. Ahots propioa duen eta herritarra den irratia da.

Hamar urte hauetan, ehunka lagun pasa dira Txolarre irratitik, «denen artean jarri diogu ahotsa Tolosaldeari» azpimarratu dute. Eskualdeko hainbat euskaltzale bildu ziren eta Tolosaldeko euskararen komunitaterako, komunikazio tresna sortu zuten.

Bidezidorra aukeratu zutela diote eta bidezidorrak, «malkartuak, gorabeheratsuak eta bihurtuak» izan ohi dire-



Udaleko, Txolarre Irratiko eta Gaztetxeako ordezkariak. A. MAIZ

la gogoratu dute. Baina «herritarren laguntzari esker, oztopo guztiak gainditu eta aurrerako bidea egin du irratia».

Astehenetik aurrera berriro ere ohiko programazioa

Azken asteak ez dira errazak izan Txolarre irratiaentzat. Duela aste batzuk, Alustizan duten emisio zentroa haizeak bota zuen. Azkeneko egunetan lanean aritu dira eta dagoeneko prest jarri dute. Astehenetik aurrera antea-

na bidezko emisioari ekingo diote eta ohiko programazioarekin hasiko dira.

10. urteurrena ospatzera, «arrakasta eta pronostiko» guztien aurka iritsi direla gogoratu dute. «Herritar askoren ahaleginari esker iraun du irratia bizi-rik eta urteurreneko ekitaldiak ere herritar horien eskariari kasu eginez» antolatu dituzte. Urte hasieratik hasi ziren ospakizunekin eta «Tolosaldeko herritar guztiak» gonbidatu dituzte.

↓ Txolarre Eguna

HILAK 11, LARUNBATA

■ **12:30.** Loatzo Musika eskolakoekin kalejira Txolarretik Anoetako plazara.

■ **14:00.** Bertso bazkaria Kuku Elkartean, Aitzol Barandiaran eta Amaia Agirre bertsolariekin. Txartela: 20 euro. Anoetako

Itzuli eta Buztina Tabernetan eta Txolarre irratian bertan eros daiteke.

■ **Ondoren.** Triki poteoa herrian zehar egingo dute.

■ **22:30.** Berri Txarrak taldearen kontzertua Anoetako Gaztetxean. Sarrerak, aldezturik 8 eurotan, Txolarre irratian.

Asteasuko XII. Nazioarteko Ziklo Krosa astehenean

Kadeteen eta nesken lasterketa 13:30ean hasiko da. Juniorren ostean, Elite eta 23 urte azpikoak irtengo dira

E. Maiz Asteasu

Astehenean, hilaren 6an, Asteasu herria Ziklo Kroso munduko txirrindularien bilgune izango da. Hamabigarren urtez jarraian, Aiztondo Txirrindulari Elkarteak antolatu du Nazioarteko XII. Ziklo Kroso lasterketa.

Kadeteak eta neskak, 13:30ean aterako dira. Juniorrak, 14:15ean hasiko dute lasterketa hauek ere Nazioarte mailan lehiatuko dira. Elite-23 azpikoak, 15:30ean izango dute irteera ordua. Ibilbidea Elizmendi auzoan izango da eta erre-

pidez 423 metro, bidean 187 metro eta zelaian 2.000 metro egin beharko dituzte. Guztira, 2.610 metroko itzulia izango dute.

Izen handiko lasterkariak

Aurten ere izen eta maila handiko lasterkariak izango dira Asteasun. Sven Nys, 33 urteko flandriarra. Inoz inork egin duen palmaresik onena du. Aurtengo Munduko Txapelduna den Zdenek Stybarrek, 24 urte ditu eta Txekier Errepublikatik etorriko da. Eta flandriarrak diren 24 urteko Niels Albert, 30 urteko Bart Wellens eta 29 urte dituen Sven Vant-hourenhout etorriko dira.

Klaas Vantornout flandiarra ere Asteasuko lasterketan izango da. Euskaldunen artean, Ruiz de Larrinaga, Murgoitio, Yus, Uriarte eta Seco eta estatutik, Suarez eta Zaballa etorriko dira.



Iazko lasterketan ere munduko txirrindulari onak izan ziren. A. MAIZ



Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Euskararen Eguna, egunero

Eskauldeko hainbat herritan ekitaldiak antolatuta dituzte gaurko: antzezlanak, hitzaldiak, jolasak, kontzertuak...

Galtzaundi euskara elkarteak Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatuko ditu

Eredakzioa

Hain justu, Galtzaundi urtero ematen dituen Ekoberrak Zuri aipamen bereziak gaur emango ditu. Bertan, ohorezko aipamenaz gain, hirioan, gizaiztasunen eta kulturaren nahar berriak diren emango dituzte sariak.

Antzerkiak eta bertsoak
Ondorengo emandakiaz izango dira: Aneetan Xabier Amurizak egindako drama, Areson UEM Aren Kultur Egunaren baitan Zurrumuru antzerki taldearena, Aste-



Gauko ekitaldien baitan, Zurrumuru taldeak Mendiko Atxorraren emango du Asteun eta Xabier Amurizaren Antzerkiaren bertsoak abiarazi ditu.



asun Patata Tropikala taldeak emango duen eta Leiztan bertako Jekki abesbatzak eskainiko duen saioa. Aresoko Guraso Elkarteak, esaterako, eguraldi txarri aurre egin eta jendea parte hartzen animatzen dute. Antzer-

kia UEM Aren Kultur Egunaren baitan antolatzen dute. Hitzaldiak ere bere lekua izango dute. Jakobak Errezondo Areson izango da eta Tolosan lan behalardilditarteko dira mahai-inguruan bere bizipenak kontatzeko.

Euskararen erabilpena bultzatzeko mezuak nagusitzen dira gaurko egunean. Hain da, hizkuntza batek irauan dezan, egunero hitz egin, entzun eta irakurri behar dela. Are gehiago, euskaraz bere bizipenak kontatzeko.

✚ Egitarauk

ANOETA

• 22:00. Xabier Amurizaren *Lazkao Txiki* bai-bateko sorgan emanaldia, udal-etxeako piletan.

ARESO

• 12:00. Udaltzeako batzar aretoa, Jakobak Errezondoren hitzaldia.
• 17:00. Zurrumuru antzerki taldearen *Pantokita eta Txipar-*

ta, ederra zalaparta haurren-tzako emanaldia. Ondoren, taloak eta pintoak egongo dira nahi duenarentzat tritilliariek alaiturik.

ASTEASU

• 15:00. Eskolako jaialdiaaren hasiera frontoan.
• 16:15. Puzken airerazeta eta merienda guraso elkartearen eskutik.
• 17:30. Mendiko Atxorraren-

tzerki emanaldia frontoan, Patata Tropikalaren eskutik.

IKAZTEGIETA

• 15:00. Herri eskolako haurren emanaldia egongo dute herriko plazan. Ondoren, bertaraten diren guztiak txokolatere bera banatuko zaien.
• 20:30. Herri gintza elkartearen aian-merienda egongo dute eta ondoren *Aupa Etxebehe* filmak ikusiko dute.

LEITZA

• 12:00. Jekki abesbatzaaren saioa udal-etxearen batzar aretoan.
• 20:15. Galtzaundi Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatuko ditu.
• 20:15. Galtzaundi Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatuko ditu.
• 20:15. Galtzaundi Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatuko ditu.

ZIZURKIL

• 19:00. Galtzaundi antolatuta, udal-etxearen batzar aretoan mahai-inguru 4 behalardilditarteko dira mahai-inguruan bere bizipenak kontatzeko.
• Arratsalde osan zehar jolasak egongo dituzte gurasoak eta ikasleak Pedro Mari Otaño ikastetxean. Ondoren gaztaina jartea egongo dute.

LABAILAN, Iñaki Azaldegi, Elene Arandia, Imanol Iturzaustabarrena eta Iñaki Arloa.

• 20:15. Galtzaundi Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatuko ditu.
• 20:15. Galtzaundi Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatuko ditu.
• 20:15. Galtzaundi Eskerrak Zuri aipamen bereziak banatuko ditu.

Blai
Jantziak eta Osagaiak
Neurriak 38tik 60ra
Tel.: 943 11 72 43
Lurre 10 beheak • TOLOSA

PLAZA
Kontzertuak
Tel.: 943 11 72 43
Lurre 10 beheak • TOLOSA

SHUYANA
ESKALINTZA BEREZIA
Urriaren 1etik 15era
%20eko deskontua
makillaje eta kosmetiko guztietan
Eskolapiztoko Lorategi, 3 • IA
TOLOSA • Tel.: 943 67 54 89
Shuyana kosmetiko dendak
TOLOSA • Korro kalea 1 • Tel.: 943 67 14 68

Ainhoa Etxeberria • Tolosaldeko Euskara zinegotzia

Tolosaldeko Udalak euskararen ordenantza berria onartu du eta, besteak beste, «udalaren zerikusia duen edozein alorretan euskaraz komunikatu ahal izatea» ahalbidetu nahi du, Etxeberriak dioenez.

«Nire ametsa: denek euskaraz egin nahi izatea eta gogo hori kutsakorra izatea»

Imanol García Tolosa

Legeslari honetan sartu zen udal gobernuan E.A.ko kide den Ainhoa Etxeberria (Arzpetia, 1969) Euskaraz zinegotzia izateko. Euskararen ordenantza berria onartu du udalak. Zer nabarmenduko zenuke bertatik?

Aurreko ordenantza 1990. urteko azken zena zerbait atzetan zarkirituta zegoen. Ordenantza berriaren ondoren zerikusia duen edozein alorretan euskaraz komunikatzea ahalbidetu nahi da. Bai udala bertaraten zuzentzen denoat, bai herritarrek udalera jotzen direnean, bai udalaren barruko harremanetan, baita errega bat kontratatzen denean lan bat egiteko... Herritarren parte hartzea azpimarratu nahiko nuke eta egin duten lana eta elkarpenak eskeratu. Aurrekoaren alderantz, berriak ordenantza berriaren bitartez jarraitzea nola egin zehazten du. Organo erregulazioen Euskarazko bertaraten ordenantza berriaren bitartez jarraitzea nola egin zehazten du. Organo erregulazioen Euskarazko bertaraten ordenantza berriaren bitartez jarraitzea nola egin zehazten du. Organo erregulazioen Euskarazko bertaraten ordenantza berriaren bitartez jarraitzea nola egin zehazten du.

tionizat ona dela eta hasi zara zerekin elkarlan hori garatzen. Baina, hitz egin dela gaitzek gurea gaurtatu baina pasoa eman behar da eta ematen hasiak dira.

«Nire ametsa: denek euskaraz egin nahi izatea eta gogo hori kutsakorra izatea»

erabilari eguneroak tutasunean eta zere garrantzi handia ematen dugua, gazte adinera iristen garen erabilarien beharrekada naharretan da, zere gaita jakin nahi dugua eta jora hori aldatu. Herri gaita eta horretarako da ekimen hau. Hiri pasotzen erregioa da.

«Nire ametsa: denek euskaraz egin nahi izatea eta gogo hori kutsakorra izatea»



4174

haurtzaindegi berria ere badao, behar bezala arloko elkarlan ere lehen pasoa ematen hasi da. Beti dago zer egin baina aurrerapauso eman direla uste dut. Proiektuak, ametsak... Euskarazko produktuak onartzea, erakargarriak, era guztietakoak, euskaraz modan jartzea. Hori da nire ametsa, denek euskaraz egin nahi izatea eta gogo hori kutsakorra izatea. Gure hizkuntzarako errespetu hortan da daukagun errotarik handiena, euskaraz egin nahi duenak egin ahal izatea ondoak guzki ikusi edo niertu gabe.

Nola ikusten duzu Tolosaldeko euskararen egoera?
Aurrera egin dela uste dut. Ni etorri nintzenean, beti berdina esaten dut baina lehen impresio hori izan zen eta hori gertatu egiten da, haurrak gaitzekin entzutek asko txokatu nintzen. Azpeltan haur, heldu eta gaitzek euskaraz egin dute eta harritu egin nintzen. Baina jada ez dut hainbeste gaitzera entzuten haurrengan eta hori itxaropuztasuna dela uste dut.

Zeregin dezake udalak euskararen egoerari?
Lanetan jarraitu, orain ere berrala ilusioa eta gogoz bertatik. Poliki poliki baina etekin gabe.

Eta herri elkarteak ere eragileak?

2011 agenda
Dagoneko salgai
12€
Liburu dendetan
www.euskarazkoagenda.com

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA
Ezaugarriak:
• Hiri urterako egutegia
• Interesko telefonoak
• Euskarazko errespetu mapa
• Aste osoa ikulgai
KORTA ETXAN, BERRIENETAN berria

Aizkora eta txinga-eroate txapelketak jokoan

Igandean herri kiroleko hiru norgehiagoka jokatu dira; bat Izarran eta beste biak Goizuetan

Eredakzioa Herri kirolak

Asteburu honetan herri kiroleko zenbait jaialdi ospatu dira. Alde batetik, Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketa abiatu da igandean Izarran, Araban. Bestetik, egun berean, Goizuetako pilotalekuan Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala izango da jokoan. Azkenik, toki berean eta jaialdi berean, gizezkoen Euskal Herriko Txinga-eroate Txapelketa izango da ikusgai.

Binakako Eusko Label Saria
Herenegun aurkeztu zuten Eusko Label Binakako Txapelketa. Aurtengoa XI.a izango da eta gazte nahiz beterano, bederatzik biko-

te ariko dira lehian. Tartean, eskualdeko bost aizkolari izango dira: Anjel Arrospe, Ruben Saralegi, Jon Rekondo, Jesus Mari Mujika eta Joseba Otaegi.

Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketa eta txinga-eroatea
Goizuetako pilotalekuan bi norgehiagoka jokatu dira igandean. 12:00etan hasiko da jaialdia.

Alde batetik, Euskadiko Txinga-eroate txapelketa ikusi ahal izango da. Hor, zortzi kirolari ariko dira lehian, eta tartean leitzar bat, Mielangel Sukuntza hain zuzen ere. Duela bi urte bera izan zen garaile, baina iaz Juanjoxe Agirregabiria debarrak kendu zion txapela. 53 urteko leitzar da egungo Nafarroako txapel-dun. Igandekoan, 50 kiloko txinga banarekin ahalik eta metro gehien egiten saiatuko dira parte-hartzaileak.

Txinga txapelketaz gain, Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala ere jokoan izango da. Hemen, abuztuaren 22ko

↓ Datuak

EUSKO LABEL BINAKAKO AIZKORA TXAPELKETA

- **A multzoa.**
Arrospe - Mugerza II
Azurmendi - Atutxa II
Olasagasti - Saralegi
- **B multzoa.**
Arria V - Rekondo
Mujika - Otaegi
Nazabal - Jauregi
- **C multzoa.**
D. Larretxea - O. Larretxea
Lopez Azpilikueta - Erasun
Senosiain I - Senosiain II

- **Lehendabiziko kanporaketa. Hilak 5, Izarran (Araba), 12:00etan.**
Nazabal - Jauregi
Mujika - Otaegi
- **Bigarren kanporaketa. Hilak 6, Lizarran (Nafarroa), 12:00etan.**
Senosiain I - Senosiain II
Lopez Azpilikueta - Erasun



Joan den asteazkenean aurkeztu zuten txapelketa. HITZA

kanporaketatik sailkatutako bost aizkolari ariko dira nor baino nor, eta tartean, leitzar bat, Ruben Saralegi. Parte-hartzaile baikoitzak bost pago-enbor moztu beharko ditu (bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oimbiko bat). Gainera, azken jardunaldi honetan sailkatzen diren bi aizkolariak mailaz igoko dira.

Irudia ◊ Ibarra



TXOTXONGILOEKIN ITSASERTZERA

Titirijai jaialdiak Tolosatik atera, eta Ibarra bidaiatxo bat egin zuen atzo. Horretaz arduratu zen Cia Marto Doy konpainia. Talde Kataluniarraren *Ran de Mare* emanaldia ikusteko aukera izan baitzuten Ibarra haurrek. Itsasoa oinarri hartuta, hainbat abentura kontatu zizkien. E. EZEIZA

Irudia ◊ Ibarra



UZTURPERAKO ESKAILERAK

Uzturpe ikastolara arteko eskailerak berritzen ari dira. Udalaren aurreikuspenen arabera, jada amaituta behar zuten inguru horretako hobetze lanek, baina hauek atzeratu egin dira. Ikastolarako irisgarritasuna hobetu eta, ibilgailu pribatuaren ordez, ikasleak eta helduak bertatik joan-etorria egitera bultzatzea dute helburu. E.E.

TOLOSALDEKO hitza
ETA LEITZALDEKO

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31860 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____

• Lanbidea: _____

• Helbidea: _____

• P.K.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia:

• N.A.: _____

• Jaioteguna: _____

• Herria: _____

• Tel.: _____

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren hitzaitegi automatizatu batera pasa lako direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahiz izan ere, datu horiek honetara TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa - edo harpidetza@hitza.info



50
20

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EGUZKIA
BEROENA	8º
HOTZENA	2º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.112.

BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.112.

ETZI

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.112.

ASTELEHENA

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!
Maria Ansa Peña (Anoeta).
Gaur 5 urte. 5 muxu potolo familiaren partetik.

The New York Times Dining & Wine

A Cider a Day Enlivens Autumn

By ERIC ASIMOV
Published November 11, 2010

YOU might say I've developed a good case of cider-for-brains. That can happen this time of year, when the scent of a roaring fire and the sound of leaves crunching underfoot prompts a Pavlovian desire for all manifestations of the apple.

Perhaps I'm overplaying the seasonal card here. The truth is, cider is a wonderful, overlooked beverage pretty much year round. The apple harvest is an autumn phenomenon, but cider — hard cider, as apple juice fermented into an alcoholic beverage is often called in the United States — is available any season. A piercingly pure, dry cider can be a beautifully refreshing summer treat.

Yet autumn imagery is so much more in keeping with its mystique. Cider seasonally associated with Thanksgiving. Even so, while cider was one of beverages in Colonial America, it is unlikely to have been consumed at th

'The New York Times' egunkariaren webgunean Euskal Herriko sagardoaren inguruko erreportaia zintzilikatu zuen Eric Asimov-ek. HITZA

Isastegiko sagardoa New Yorken

'The New York Times' egunkariaren webgunean euskal sagardoari buruzko aipamenak egin dituzte

Asier Imaz Tolosaldea

Euskal Herriko sagardoak jarraitzaile berri bat dauka munduan, *The New York Times* egunkariko Eric Asimov kazetaria. Ameriketako Estatu Batuetako kazetaren web orrian, Asimov-ek sagardoari buruzko erreportaia zintzilikatu zuen azaroaren 15ean, *Udazken egun alai bateko sagardoa* izenburupean.

Bertan, Euskal Herriko hiru sagardo ekoizle aipatzen ditu kazetariak: Astigarragako Sarasola eta Bereziartua eta Tolosako Aldaba Txikiako Isastegi.

Euskal Herrian munduko sagardorik «handienetakoa eta ezohikoenetakoa» ekoizten omen da amerikarraren ustez.

Isastegiko sagardo naturalaren inguruan, «freskoa, bizia eta lehorra» dela aipatzen du kazetariak, eta «animalien lurrrin ukitu» ere sumatzen omen dio.

Sarasola eta Bereziartua bezala, «benetan gustukoa» omen du Aldaba Txikiako sagardoa; «Euskal Herriko sagarraren zaporea bere esentzian mantentzen baitu», beste hainbat ezaugarriekin

batera. AEBko tradizioak aldatzeko gomendioak ere egiten ditu erreportariak.

Indioilarrarekin sagardoa

The New York Times-eko kazetariak Manhattan-eko jatetxe batean ezagutu zuen Euskal Herriko sagardoa. Ohitu gabe dagoenak, hasieran, atzera egiten omen du. Behin gustua hartu ondoren ordea, Belgikako garagardo tradizionalarekin alderatzen du Asimov-ek; «egia esan, sagardoa edari zoragarria da» esaten amaitzen du. Eta ez hori bakarrik, AEBetan hain ospetsua den Thanksgiving edo Eskerrak Emateko Egunean, indioilarrarekin sagardoa edatea gomendatzen du Asimov-ek.

Udako egun beroetarako ere, sagardoa «freskagarri zoragarria» litzatekeela dio erreportari amerikarrak.

Asturiarrak haserre

Isastegiko sagardoa banatzaile baten bidez iritsi da Manhattanera, albistea berriz, Internet bidez jaso dute Isastegikoek, nahiz eta Sagardo Elkartetik ere abisua pasa zieten.

Erreportariarekin kexu agertu direnak, *La voz de España* egunkarian, asturiar sagardo ekoizleak izan dira. Euren produktuaren aipamenik ez baita agertzen Asimov-en esperientzia pertsonalean oinarriturik dagoen erreportaian.

www.TOLOSALDEA.hitza.info
www.IBARRALDEA.hitza.info
www.ALEGIALDEA.hitza.info
www.LEITZALDEA.hitza.info
www.TOLOSA.hitza.info
www.ANOETALDEA.hitza.info
www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info

**EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK**

**SEGORE
ETXE BERRI**

SANTA MARINA
Tel.: 943 58 09 76 - Mugikorra 610 460 751